

Prentsa oharra

‘Mies van der Rohe’-k saritutako lana ikusgai dago Euskadiko Arkitektura Institutuan Donostian



2019|04|11

> Bordelen dauden hiru eraikin handi batzuetan egindako eraldaketak izan dira Europar Batasunak ematen duen sariaren irabazle, Lacaton&Vassal estudioak, Frédéric Druot eta Christophe Hutin-ekin batera, egindakoak. Erakusketa, ‘Tabula non rasa’ izenpean, uztailara arte ikusgai egongo da, doainik.

‘Tabula non rasa’ erakusketak estreinatu du Euskadiko Arkitektura Institutua (EAI). Hiri-espazio zaharkituen bilakaera aldarrikatzen du, eraispena baztertuz. Bere atal nagusia 2019ko ‘Mies van der Rohe’ sari prestigiotsuaren irabazleari dago eskeinita, aste honetan aitortua. Europar Batasunaren Arkitektura Garaikidearen Saria, ‘Mies van der Rohe’ deritzona, arkitektura ekoizpenaren kalitatea onartu eta saritzen du. Aurten, Lacaton&Vassal estudioak Frédéric Druot eta Christophe Hutin-ekin batera jaso du, Bordele hiri frantziarrean dauden 60. hamarkadako hiru eraikin handi batzuen eraldaketaren egileak izanik.

Gerraoste garai hartan, etxebizitza berrien eraikuntza sustatu egin zen; gaur egun, arkitektonikoki behe-mailakoak, urbanistikoki okerrak eta ideologikoki

zaharkituztat hartzen dira eraikin horiek. Erakusketak egitasmo horien urterik bikainenak heltzear daudela azpimarratzen du, eraldatzen badira, haien bizi-baldintzak hobetzen badira eta haien azalera zabaltzen bada.

‘Tabula non rasa’-k, doainik ikusgai egongo dena Donostiako Santa Teresa Komentuan uztailaren 14ra arte, ostegunetik ostiralera, eraikinen eta hiri-espazio eraikiaren bilakaerari buruzko gogoeta bat planteatzen du hiru espazioen bitartez. Urte askotan, eraikinen funtzioa edo jabetza aldatzen denean eraikin horiek eraitsi eta beste batzuekin ordeztzen dituztela ikusi dugu. Horrek guztiak, kalte ekonomikoa eta ingurumen-kaltea ez ezik, hiri-identitatearen galera ere badakar. Hala ere, gaur egun gora egiten ari da eraispenaren kultura kritikatzan dutenen kopurua, eta gero eta arkitekto gehiagok ikertzen dute eraikinen ‘eraldagarritasuna’, ikerketa-esparru zabala irekitzen baitu, alde zuretik zehaztutako jarraibiderik gabe.

Bordelen garatutako lanak Gand Parc-eko 530 etxebizitzaren azalera handitzea eta bizi-baldintzak hobetzea ahalbidetu zuen. Egongelak 20 metrotan zabaldu ziren, energia-kontsumoa %50 murriztu zen argi gehiago lortzean leihoen ordeztze handiak ezarriz, eta eskuragarritasuna hobetu zen kanpo-igogailuekin. Gainera, 3,80 metro zabalera gehitu zen negu-lorategi eta balkoiak sortuz. Horrek guztiak ez zuen etxebizitzaren prezioa igo. Lanek auzokoen partaidetza sustatu zuten, haien etxebizitza uztera behartu gabe berrikuntzaren azkartasuna zela medio. Ondorioa: arkitektura berritzaile, sozialki erantzule eta jasangarriago bat.

Más información:

Eduardo Ortiz de Arri
(647 770052)